

# JOXANTONIO ETA MARILUZEN URREZKO EZTEGUAK

*Doinua: "Andra Madalen"*

JOXANTONIO ETA MARILUZ  
ALKARREN ANDRA-GIZONAK,  
BIOK URREZKO EZTEGUETAN  
HARTU GURE ZORIONAK.

1

Berrogeita hamar urtetxo dira  
pozik zinela ezkondu,  
nahiko denpora da ikasteko  
zelan alkarraz konpondu.

2

Bata botaka ibili arren  
eta bestea besaka,  
hainbeste urtez buztarri batek  
hezteko indarra dauka.

3

Alkarbizitzan izaten dira  
larrosa eta asunak,  
halako baten irabazten dau  
larrosa dan maitasunak.

4

Alkarbizitzan indarra dauka  
ezkontza sakramentuak,  
falta jakona emoten deutso  
hartzen dan eskarmentuak.

5

Seme-alabak sortu ta hezi  
ez al da goxo-garratza?  
Alkar hartuta ondo lantzen da  
maitasunezko baratza.

6

Bizitzan zehar ustekabeen  
pizti gaiztoak ondora,  
opari onak be izan dabez,  
onena Bizian Gora.

7

Senar-emazte eginak dagoz  
luzaroan alkartuta,  
alkartuago sentitzen dira  
Bizian Goran batuta.

8

Bizian Goran anai-arrebak  
zorion, txalo ugari,  
zuok eta guk alkar hartuta  
esker beroak Jaunari.

9

Urrezko koroï ta guzti baina  
oïndino ez da amaitu,  
gure artean nahi zaituegu  
eta alkarraz jarraitu.

10

Azken batean, Jainko maitea,  
badogu gaur zer eskatu:  
Joxantonio eta Mariluz  
gure partez BEDEINKATU.

A.Martzel